

UDALBURUA  
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALEKO UDALBATZA OSOAK 2017ko  
APIRILAREN 20an EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo  
José Antonio Bartolomé  
Montse Angulo  
Josu Artetxe  
Esteban Hernando  
Nerea Goti  
Iraida Saenz de Lafuente

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamazazpiko apirilaren hogeian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/85 Legea) 46.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU            EZ

DIRENAK

Susana Martín  
Lauren Uria  
Iratxe Parro

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak osoko bilkurara ongietorria eman die denei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2017ko martxoaren 23an eginiko ohiko bilkuraren akta.**

Esteban jaunak (BILDU) aipatu du martxoko bilkuraren aktaren 6. puntuan, Iraida andreak hitz egin ondoren, berak erantzun zuela aurreko kontratua esleitu zen baldintzetan exekututzen ari dela, adostutako prezioetan.

Idazkariak esan du aipamen hori gehituko duela 2017ko martxoaren 23ko aktan.

Besterik aipatu gabe, akta bozkatu da eta bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

**2.- Onestea, bidezkoa bada, maiatzaren 17ko, Homofobia, Lesbofobia eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguneko, erakunde-adierazpena.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan, eta bozketa egin da. Adierazpena aho batez onetsi da. Hori dela bide,

**“ERAKUNDE-ADIERAZPENA: MAIATZAREN 17a, HOMOFOBIA, LESBOFOBIA ETA TRANSFOBIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.**

Urtero, maiatzaren 17an, homofobia, lesbofobia eta transfobiaren aurkako eguna aldarrikatzen dugu.

Aiarako Udalak berretsi egiten du sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen ondoriozko bazterkeriaren kontra borrokatzeko konpromisoa.

Konpromiso horren adibide da Zinegoak Zinemaldia ekartzea Aiara, identitate eta sexu-aukera desberdinen onarpena ikusarazteko Aiara. Era berean, urtero, hezkidetza-programaren baitan, genero- eta sexu-aniztasuna lantzen da ikasgeletan, Etxaurren Ikastolarekin batera.

Egia da azken urteotan LGTB kolektiboek aurrerapen handiak lortu dituztela, lege eta eskubide batzuk berdindu baitzaizkie. Hala ere, oraindik badira lortu beharreko zenbait garaipen sozial, besteak beste, sexu-orientazioa eta genero-identitatea tarteko gertatzen den indarkeria desagerraraztea, horrek oraindik ere eragiten baitie gure gizartean lesbiana, gay, transexual, bisexual eta transgenero pertsoneri.

Egoera horren ondorioz, gay, lesbiana, transexual, bisexual eta transgeneroek askotan intimitatean eta sekretupean baino ez dituzte egiten adierazpen afektibo-sexualak eta identitatearekin lotutakoak, mendeetan zehar jasandako errepresioaren beldur.

Horregatik guztiagatik, berdintasunean oinarritutako gizarte anitz bat eratzeko, Aiarako Udalak, honako konpromiso hauek hartu ditu:

1. Pertsona guztiak errespetatzea, haien sexu-orientazioa eta genero-identitatea edozein direla ere.
2. Pertsonen duintasuna eta osotasun fisikoa errespetatzea, eta irmotasunez kondenatzea espazio publikoan ematen diren adierazpen homofobo, lesbofobo eta transfoboak.
3. Espazio publikoan egindako adierazpen afektibo-sexualen eta genero-identitateen ikusgarritasuna errespetatzea.
4. Sexu-aukera eta genero-identitate desberdinei buruz irudi duina sustatzea esparru guztietan.
5. Esperientziak eta jarrerak bultzatzea gizarte pluralago baten alde lan egiteko, irekiagoa eta integratzailea, sexu-orientazioa eta genero-identitatea ez daitezen oztopo izan inorentzat.
6. Sexualitate anitzerantz aurrera egitea, mitorik gabe, alderaketarik gabe, inposiziorik gabe, eta sexualitatea aske gauzatzearen aurka jarduten duen jokabide orori aurre egitea”.

**3.- Behin-behinean onestea, bidezkoa bada, “Al Sitio de Tuba” Plan Berezia; Llanteno 2. poligonoko 1263 lursailean garatuko da, J.M<sup>a</sup> S. I. jaunak aurkeztutako dokumentua kontuan hartuz (4. testu bategina).**

Josu jaunak (BILDU) adierazi du bere taldea abstenitu egingo dela. Proiektu hau aurreko legegintzaldian hasi zen eta, aurkeztu zenean, logikoa den bezala, Udaleko arkitektoak txostena egin zuen; txostena hasierako proposamenaren kontrakoa izan zen. Hainbat hilabetez, gobernu taldeak presio handia jasan zuen oposizioko taldeen aldetik; horiek Aldundiko teknikariarengana jo zuten, Hormazabal jaunarengana.

Iraida andreak (AB) esan du bere taldea ez zela joan Hormazabal jaunarekin egindako bilerara; ez zuten bilera horren berririk izan egin zen arte, eta beraiek dakitela, soilik Alderdi Popularreko ordezkaria joan zen.

José Antonio jaunak (EAJ-PNV) gehitu du ez duela uste EAJ taldeko ordezkaria Aldundiko teknikaria presionatzera joan zenik.

Josu jaunak (BILDU) jarraitu du eta esan du presio gogorra jasan zutela, eta gobernu taldeak egin zuen gauza bakarra txosten teknikoak jarraitzea izan zela. Sarachaga jauna 2 edo 3 bilkuretara, edo gehiagotara, joan zen; gainera, ospe handiko abokatu baten txosten teknikoa eskatu zuten, eta txosten horretan ere aurkako irizpena ematen zen. Eta, hala ere, presionatzen jarraitu zuten eta, azkenean, Plan Berezia tramitatzea proposatu zuten. Hormazabal jaunak konponbide bat aurkitu behar izan zuen eta azkenean aurrera atera zen, oztopoak oztopo, hiru aurkako txosten eduki arren.

Plan Berezia, Josu jaunak esan du, egungo udal-arkitektoak darama; legalki izendatu zen lanpostu horretarako, baina izendapen horretan hainbat hutsune daude. Izan ere, gure ustez, ez ditu lanpostuaren betebeharrak betetzen: ez du euskara profila betetzen, eta administrazio publikoetan esperientziarik ez duen arkitekto bat da. Hala, Plan Berezi hau udal-arkitektoak idatzi du, baina beste arkitekto batek sinatu behar du. Legezkoa izango da, baina nahasgarria da horrela ibiltzea.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Plan Berezia D. P.k idatzi zuela, baina udal-izapideetan A .P.k egin zuen txostena. Beste arkitekto bat kontratatu zen udal-izapideei zegozkien txostenak egiteko, Davidek ezin baitzuen.

Josu jaunak (BILDU) esan du Plan Berezia Davidek idatzi zuela eta txostena A .P.k; legezkoa izango da, bai, baina egoera konplexua da. Plaza jauna Udalaren Plan Berezi baten txostena egiteko gai den galdetu du.

Gentza jaunak baietz erantzun du, arkitektoa baita.

Josu jaunak gehitu du ez dela udal-arkitektoa, legearen barruan egindako trikimailu bat da.

Gentza jaunak erantzun du Plan Berezia hasiera batean onetsi zela, argitaratu egin zela eta ez zela alegaziorik aurkeztu; eta, orain, behin-behinean onesteko ekarri da.

Josu jaunak esan du Plan hori legezko baldintza guztiekin onetsiko dela, hori argi dago. Baina Plan hau eta Los Arcos de Quejanakoa (legez kanpoko hainbat jarduketa legezatzeko proposatu zen, J. L. LL. zendutako zinegotziaren garaian) arkitekto berak idatzi ditu, hau da, udal-arkitektoak. Arkitekto hau aldi baterako iritsi zen Udalera, eta urte bat eta lau hilabete geroago, hor dago oraindik; eta esan zenuten 2016aren amaierarako egoerari hori konponduko zenutela.

Halaber, Josu jaunak (BILDU) jarraitu du esaten proiektuak idazteko azken bi kontratuen esleipenarekin (arkitekto teknikoari eta udal-arkitektoari) zalantzak dituztela, ez dakigu ezer kontratazio horiei buruz, ez dakigu aurrekontu gehiago egon ziren, edo bakarrak izan ziren.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du jakiteko galdetu egin behar dela. Zinegotziei dokumentuan sarrera eta irteeren zerrenda igortzen zaie, eta espediente guztiak zinegotzien eskura daude. Batzordeetan aipatu zen Los Arcos de Quejanako eta Sarachagako Plan Bereziaren espedienteetan kanpoko arkitekto Plaza jaunari eskatuko zitzaiola txostena egiteko. Plan Bereziari dagokionez, Aldundiak proposatu zuen Plan Bereziaren bidetik izapidetzea. Eta espediente hau abiarazi da eta aldeko txostenak egin dira udal-izapide guztietan.

Josu jaunak aipatu du bera proiektua aurkeztu zen lehen aldiaz ari zela, ez Plan Berezi honi buruz. Proiektua hasieran aurkeztu zenean, aurkako txostena egin zen, azaldu dugun bezala.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du orain Plan Berezia izapidetzen ari direla. Aldundiak hirigintza-tresna hori proposatu zuen proiektua martxan jartzeko. Aldundiak behin betiko onesten badu, eragozpenik ez dagoelako izango da.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du orain Hiri Antolamendurako Plan Orokorra lantzen ari direla, eta zalantza dauka Plan Berezi horrekin gauza batzuk egin ahal izango diren; ez daki, gehitu du, gauza gehiago aurkituko dituzten.

José jaunak (EAJ-PNV) aipatu du, aurreko legegintzaldiari dagokionez, bera ez zegoela sail horretan, baina badakiela Aldundiak ez zuela ulertzen udal-teknikariak zergatik eskatu zuen interes publikoko aitortpena; Aldundiaren ustez ez zen beharrezkoa. Hortaz, zaila da pertsona bati ulertaraztea Aldundiarentzat beharrezkoa ez den udal-baldintza bat dela-eta garapen bat gelditzen ari direla.

Josu jaunak gehitu du interes publiko hori ez dagoela; interes pribatu bat da, negozio bat.

Gentza jaunak gogorarazi du hori ez dela eztabaidaren helburua. Bilkurara ekarri dena da Plan Bereziaren izapidetzea, onets dadin.

Iraida andreak (AB) esan du egia dela bere taldeak aurreko gobernu taldeari eskatu ziola hirigintza-txostena idazteko, hirigintzaren arloan prestigioa zuen abokaturen baten eskutik. Eta bere taldeak soilik txosten hori eskatu zuen, eta beraien gain hartuko zuten txostenaren emaitza. Ondoren, gehitu du, beste talde batzuek eragin zuten aurreko gobernu taldeak jasandako presioa, ez Aiara Batuzek. Horren ondoren, Aldundiak Plan Berezi bat izapidetzeko aukera eman zuen, eta horrela egin da.

Josu jaunak aipatu du Aiara Batuz taldeak, aurreko legegintzaldian, oposizio gogorra egin zuela kasu honetan eta beste batzuetan.

Iraida andreak erantzun du partikularrak laguntza eskatu zenez, txostena eskatzeko konpromisoa hartu zutela, eta hori oinarritzat hartzea erabakiak hartzeko. Eta Los Arcos de Quejanako Plan Bereziari dagokionez, bere taldea hasieratik egon zen proposatutako sakabanatzearen aurka, eta aurreko legegintzaldian eta oraingoan eskatu zuten eraikigarritasunaren kontzentrazio bat.

Nerea andreak (BILDU) esan du hasieran aurkeztu zen proiektuak aurkako txostenak zituela eta orain, Plan Berezia izenarekin, ongi dagoela.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du orain izapidetu dena beste hirigintza-tresna bat dela.

Iraida andreak (AB) esan du Plan Bereziaren behin betiko onespina Aldundiari dagokiola, eta onspen horretan erabilera publikoko aitortpena sartzen dela. Aldundiak eta EAeko Lurralde Antolamendurako Batzordeak erabaki beharko dute onetsi edo ez. Hirigintzari dagokionez beste ñabardura batzuk ditu, eta Aldundiak ahalbidetu zuen tresna edo bide bat da.

Nerea andreak aipatu du ez duela ulertzen orain zergatik onets daitekeen; izan ere, lursaila ez da aldatu eta proiektua ere ez.

Besterik esan ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da emaitza:

-Aldeko botoak: 5 (4 EAJ-PNV) + 1 AB)

- Abstentzioak: 3 (BILDU)

Hori dela bide,

**IKUSI DIRA.-** Udalak egindako jarduketak, “Al Sitio de Tuba” Plan Bereziaren espedientea izapidetzeko helburuarekin; plan hori Llanteno 2. poligonoko 1263 lursailen garatuko da.

**IKUSI DA.-** 2016ko maiatzaren 11n igorri zela 160/16 Alkatetza Dekretua; horren bidez, Plan Berezi hori hasiera batean onestea erabaki zen. Halaber, 45 laneguneko epean jendaurrean ikusgai jarri da, ALHAOn argitaratutako egunetik zenbatzen hasita. Iragarkia 2016ko maiatzaren 25eko ALHAOn (59. zenbakia) eta 2016ko maiatzaren 20ko El Correo egunkarian argitaratu zen. Aldi berean, epe horretan planaren Ingurumen Azterketa Estrategikoa jendaurrean ikusgai jarri zen.

Era berean, erabakia jakinarazi zitzaion Llanteno Administrazio Batzari, eta txosten teknikoetan aipatutako administrazio publiko eta sektoriale, jakinaren gainean egon zitezen.

**IKUSI DA.-** 45 eguneko epea igaro ondoren, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirolak Saileko Ondare Historiko Arkitektoniko Zerbitzuak idatzitako txostena aurkeztu dela.

**IKUSI DA.-** 2016ko abuztuaren 5ean, jendaurreko epea amaitu ondoren, C. de P. y O. jaunak alegazio bat aurkeztu zuela udal-bulegoetan, Plan Bereziaren hasierako onespeneren eta Ingurumen Azterketa Estrategikoaren aurka.

Halaber, 2016ko azaroaren 21ean (epez kanpo) IHOBek (Eusko Jaurlaritza) idatzitako txosten bat sartu zen Udalean.

**IKUSI DA.-** 2017ko otsailaren 10ean jaso zela Arabako Foru Aldundiko Ingurumena eta Hirigintza Saileko Ingurumen Jasangarritasun Zerbitzuak igorritako “Al sitio de Tuba” Plan Bereziaren Ohiko Ingurumen Ebaluazio Estrategiaren prozeduran eskatutako baldintzak zuzentzen dituen txostena.

**IKUSI DA.-** 2017ko martxoaren 23an J. M. S. I. jaunak Udalean aurkeztu zuela “Al Sitio de Tuba” Plan Bereziaren 4. testuategina; bertan jasotzen dira Ingurumen Adierazpen Estrategikoan jasotako argibideak.

**AINTZAT HARTU DA.-** A .P. López teknikari jaunak 2017ko martxoaren 30ean egindako behin-behineko onespeneren aldeko txostena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Udaleko idazkariak 2017ko martxoaren 30ean egindako behin-behineko onespeneren aldeko txostena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak Batzordeak 2017ko apirilaren 4ko bilkuran emandako aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen (ekainaren 30eko 2/2006 Legea) 95. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen dena.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien gehiengoarekin (aldeko 5 boto eta 3 abstentzio), honako hau **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** C. de P. y O. jaunak 2016ko abuztuaren 5ean aurkeztutako alegazioa gaitzestea, epez kanpo aurkezteagatik.

**Bigarrena.-** Erabaki honen berri ematea C. de P. jaunari eta jakinaraztea ebazpen honen aurka berrezartze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango duela, Udalaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita; bestela, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzien Gasteizko Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean.

**Hirugarrena.-** Behin-behinean onestea, bidezkoa bada, “Al Sitio de Tuba” Plan Berezia; Llantenoko 2. poligonoko 1263 lursailean garatuko da, J. M. S. I. jaunak aurkeztutako dokumentua kontuan hartuz (4. testuategina).

**Laugarrena.-** Erabaki honen ziurtagiria igortzea Arabako Foru Aldundiko Ingurumena eta Hirigintza Saileko Ingurumen Jasangarritasun Zerbitzuari.

**Bosgarrena.-** Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igortzea espedientea, dagokion txostena idatz dezan.

**Seigarrena.-** Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena jaso ondoren, espediente guztia igorriko zaio Arabako Foru Aldundiko Ingurumena eta Hirigintza Saileko Hirigintza Zerbitzuari, behin betiko onetsi dezan.

**Zazpigarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea Llantenoako Administrazio Batzari, jakin dezan eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

#### **4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udala Amukatu Elkartearekin lankidetzan aritzeko hitzarmena, 2017. urtekoa.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalak interesa duela Amukatu Elkartearen gizarte-jarduera babesteko; horren helburua da Aiarako katu-kolonien egoera hobetu eta kontrolatzea.

**IKUSI DA.-** Elkarte horrek harreman zuzena duela Laudioko eta Urduñako albaitaritzazentrotarekin, katuen koloniak kudeatzeko proiektuaren barnean, batez ere esterilizazio-lanei eta higiene zein saneamenduari loturiko jardueri dagokienez.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udala eta Amukatu Elkartearen lankidetzan aritzeko hitzarmena, 2017 ekitaldirako.

**IKUSI DA.-** Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2017ko apirilaren 4an igorritako aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hitzarmen horrek arautu egiten duela Aiarako Udalak Amukatu Elkarteari zuzenean emandako diru-laguntza, eta udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia duen partida nominatiboa dagoela, Udalarari hitzarmena sinatzeak dakarkion gastua bere gain hartzeko.

Udalbatza Osoak aho batez **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udalaren eta Amukatu Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, 2017 ekitaldirako, Aiara udalerrian bizi diren katuen kolonien baldintza higieniko eta sanitarioak kontrolatzeko eta hobetzeko lanak sustatzeko.

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

**Hirugarrena.-** Hitzarmena sinatu ondoren, Amukatu Elkarteari jakinaraztea, hitzarmenaren bi kopia erantsita, aleetako bat sinatu ondoren Udalarari itzultzeko.

#### **5.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Hogeitalau Euskara Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Udalak interesa duela euskararen ezagutza eta erabilera udal-arlo guztietan sustatzeko.

**IKUSI DA.-** Hogeitalau Euskara Elkartearen izena emanda dagoela Aiara udalerriko elkartearen erregistroan, eta, besteak beste, euskararen ezagutza eta erabilera soziala bultzatzea duela helburu.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udala eta Hogeitalau Euskara Elkartearen lankidetzan aritzeko hitzarmena, 2017 ekitaldirako.

**IKUSI DA.-** Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2017ko apirilaren 4an igorritako aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hitzarmen horrek arautu egiten duela Aiarako Udalak Hogeitalau Euskara Elkartearen alde zuzenean emandako diru-laguntza, eta udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia duen partida nominatiboa dagoela, Udalarik hitzarmena sinatzeak dakarkion gastua bere gain hartzeko.

Udalbatza Osoak honako hau **ERABAKI DU**, aho batez:

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udalaren eta Hogeitalau Euskara Elkartearen artean 2017 ekitaldirako sinatuko den lankidetzaren hitzarmena, Aiara udalerrian euskara sustatzeko ekimenak eta jarduerak bultzatzeko asmoz.

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

**Hirugarrena.-** Hitzarmena sinatutakoan, Hogeitalau Euskara Elkarteari jakinaraztea eta horren bi ale helaraztea, sina ditzan eta geroago Udalarik ale horietako bat itzul diezaion.

**6.- Udalbatza Osoari jakinaraztea erakunde kontu-hartzaileak txostena egin duela, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioz. Txostena Diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoa da.**

Udalbatza jakitun geratu da.

#### **7.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:**

- **105/17 erref.-** Onestea Arabako Foru Aldundiari (Mugarri Plana) egindako diru-laguntza eskaera, Etxaurren Ikastolan biomasazko berogailu-sistema jartzeko.
- **106/17 erref: M.I.E.B.-** Arespalditzako "Atxa Jauregiko Etxezainen Etxea Birgaitzeko" obrarako lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **107/16 erref.: L.T.M.-** Obrarako lizentziaren eskaera baztertzea, horretarako jarritako epean agiri guztiak ez aurkezteagatik.
- **108/17 erref.: E.B.B.-** Bereizteko lizentziaren eskaera baztertzea, horretarako jarritako epean agiri guztiak ez aurkezteagatik.
- **109/17 erref.: J.G.G.-** Bereizteko lizentziaren eskaera baztertzea, horretarako jarritako epean agiri guztiak ez aurkezteagatik.
- **110/17 erref.: L.R.L.-** Obrarako lizentziaren eskaera baztertzea, horretarako jarritako epean agiri guztiak ez aurkezteagatik.

- **111/17 erref.: S.L.U. eta I.U.B.-** Agiri gehiago eskatzea, Arespalditzan etxebizitza bat lehen aldiz erabiltzeko lizentziaren espedientearen harira.
- **112/17 erref.: J.U. eta S.G.-** Agiri gehiago eskatzea, Arespalditzan etxebizitza bat lehen aldiz erabiltzeko lizentziaren espedientearen harira.
- **113/17 erref.: Arespalditzako Administrazio Batza.-** Obrarako lizentziaren eskaera baztertzea, horretarako jarritako epean agiri guztiak ez aurkezteagatik.
- **114/17 erref.: Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.-** Obrarako lizentziaren eskaera baztertzea, horretarako jarritako epean agiri guztiak ez aurkezteagatik.
- **117/17 erref.-** Funtzionari bati lanaldia murrizteko baimena ematea.
- **116/17 erref.-** 2016ko aurrekontuaren likidazioa onestea.
- **117/17 erref.: I.A.U.-** 2016 ekitaldiko zaborren tasaren ordainketaren ordainagiriari buruzko eskaera baztertzea.
- **118/17 erref.: M.B.E.-** Hobaria ematea Ibilgailuen gaineko Udal Zergan, familia ugariak izatea egiaztatzeagatik.
- **119/17 erref.: GAROBEL MENDI TALDEA.-** 2016ko diru-laguntza itzultzeko prozedura abiarazteko dekretua.
- **120/17 erref.: HOGEITALAU EUSKARA ELKARTEA.-** 2015eko justifikatu gabeko zenbatekoa berdintzea 2016an diruz laguntzeko dagoen zenbatekoarekin.
- **121/17 erref.: M.E.E.V.-** Txakurra inskribatzea arriskutsuak izan daitezkeen txakurren erregistroan.
- **122/17 erref.: E.V.C.-** Eskatutako lizentziaren uko-egitea onestea eta obrarako lizentzia ematea, Salmantongo lursail batean hainbat jarduketara egiteko.
- **123/17 erref.: Sojoko Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, argiteria publikoa handitzeko eta LED lanparak ordezkatzeko.
- **124/17 erref.: Tramame SA - Remai SA.-** Agiriak eskatzea, IBBn zehaztutako neurri babesle eta zuzentzaileak bete dituztela frogatzeko.
- **125/17 erref.: T.E.I.-** Jarritako fidantza itzultzeko agiri gehiago eskatzea, “nekazaritzako tresnak gordetzeko etxolaren euste- eta eraikitze-horma” obraren hondakinen kudeaketa bermatzeko.
- **126/17 erref.:** Onestea Aiarako 3. poligonoko 1333 katastro-lursaileko erabilera publikoko jarduketan obren Segurtasun eta Osasun Plana.
- **127/17 erref.-** Onestea F/2017/3 zenbakiko fakturaren kontabilitate-zerrenda.
- **128/17 erref.-** Abere Zerbitzu Teknikoak Koop. S.- Pirinioetako arrazako ganaduaren Arabako III. Lehiaketa antolatzeke zerbitzua esleitzea.
- **129/17 erref.: J.M.E.S.-** Arespalditzan taxi gisa erabiltzen den ibilgailua ordezteko baimena ematea.
- **130/17 erref.: Abere Zerbitzu Teknikoak Koop.S.-** San Isidroko 2017ko azokan ganadu-erakusketa antolatzeke zerbitzua esleitzea.
- **131/17 erref.: G.S.B.-** Eskatutako informazio publikoa lortzeko baimena ematea.
- **132/17 erref.: Kantauriko Urkidetza.-** Eskatutako informazio publikoa lortzeko baimena ematea.
- **131/17 erref.: E.C.O.-** Eskatutako informazio publikoa lortzeko baimena ematea.
- **134/17 erref.: Maderas Zerrabe SL.-** Administrazio-espedientea abiaraztea Zuhatzako zerrategiko industria-jarduera gelditu eta behin betiko ixteko.
- **135/17 erref.: Zandesa.-** Egindako eskaera zuzentzeko eskatzea.
- **136/17 erref.: Aldaketa Soziala Berria SL.-** Aiarako “Jolas Txokoak” udaleku irekiak esleitzea.

- La Sra. Iraida andreak (AB) 134/17 Dekretuari buruz galdetu du.



Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio hirugarren batek salaketa jarri duela, ikuskapena egin dela eta dagokion izapidea abiarazi dela.

Josu jaunak (BILDU) aipatu du funtzioak alde batera utzi zirela, baita aurreko legegintzaldian ere; hortaz, oso ongi iruditzen zaie espediente hori abiaraztea eta konpontzea.

- Josu jaunak 124/17 Dekretuari buruz galdetu du.

Gentza jaunak erantzun du agiri gehiago eskatu zaizkiela neurri horiek arrazoitzeko. Hoberena espedientea ikustea da; izan ere, txostena oso luzea eta konplexua da.

## **8.- Eskaerak eta galderak.**

- Iraida andreak (AB) aipatu du zegokion batzordean esan zela Sierrara doazen animaliak kontrolatzeko enpresa bat kontratatu behar zela, eta gaia zer egoeratan dagoen jakin nahi du.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du zerbitzu hori emango duten enpresak bilatzen ari direla, eta Aldundiari galdetu diotela ea beraiek enpresaren bat ezagutzen duten.

Josu jaunak (BILDU) esan du Gasteizko enpresa bat bazegoela, zerbitzu hori eskain zezakeena, eta, gehitu du, udalerritik kanpoko enpresa bat bilatzea komeni dela, inplikaziorik egon ez dadin.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du arratsaldeko zortziak direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamazazpiko apirilaren hogeian.

OE  
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.